



TAXIEN MAHAIA

2022ko uztailaren 19a

GAI-ZERREDA:

1. Ongi etorria.
2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa
3. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa
4. Informazioa hurrengo gaiei buruz:
 - Getxo udalerriko taxiatarako ibilgailu elektriko berriak erosteko laguntzak, 2022an udalerriko taxi elektrikoen kopurua areagotze aldera
 - 2021eko kontrataziorako laguntzak
 - Aldaketa: Bidaiarien alokairurako automobilen eskatu ahalako zerbitzu publikoaren erregelamendua
 - Telletxeko aparkaleku-plazak
 - Lokal publikoa okupatzea
5. Ideia eta proposamen berriak: taldeko eztabaida
6. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.

BERTARATUAK: (% 50)

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Taxe sektorea	José Ignacio López (BizkaiTaxiko presidentea)	X		
	Getxo Taxi Tour-eko ordezkaria		X	



Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	* Idoia Belasko	X		
	Sonia Urdiain	X		
	Aitor Zorrilla	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Sonia Urdiainek, ekonomia sustapeneko arloko teknikoak, bilerara gerturatutakoak agurtu eta aurkeztu ditu, jarraian udako denboraldiaren inguruko eztabaida bat egiteko eta sektorearen aurreikuspenak zeintzuk diren azaltzeko.

2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa

BizkaiTaxiko presidente José Ignacio Lópezek azaldu duenez, maiatzetik langileen % 100 lanean hasi diren arren, irailetik aurrera ez dute ezer positiborik ikusten, erregaiaren prezioaren igoeratik eta ekonomia aldatzen duten beste inguruabar batzuegatik. Gainera, kezkatuta dago sektorearen egoera ez delako hobetzen: “Ezinezkoa da hilean 24 egunez lan egiten duen pertsona batek pandemian 14 egunez egiten zituen zerbitzu berdinak egitea”. Jose Ignacio Lópezek ez du Uber lehiakidetzat hartzen. Izan ere, uste du hori agertzea baliagarria izan daitekeela sektorea berrasmutzen saiatzeko eta belarriak tente jartzeko.

Horrez gain, etengabeko prestakuntza egiteko eta gaitasun digitalak hobetzeko beharra dagoela azpimarratu du, baita taxilari guztiek gailu homogeneoak izateko beharra ere.

3. Bidalitako dokumentu erantsiaren balorazioa

Hainbat alderdi politikok eta merkataritzako ordezkariak egindako iradokizunen ondoren, hartutako metodologia berria azaldu du Sonia Urdainek, hots, egindako proiektuen aurrerapena eta prozesua adierazten duen laburpen-fitxa bilera baino lehen bidaltzekoa. Jose Ignacio Lópezek ez du horri buruzko oharrik egin.

4. Informazioa hurrengo gaietarako:

a) Getxo udalerriko taxi erosteko ibilgailu elektriko berriak erosteko laguntzak, 2022an udalerriko taxi elektrikoaren kopurua areagotze aldera

Idoia Belaskok aipatu duenez, duela gutxi argitaratu dira laguntzak arautzen dituzten oinarriak. Jose Ignacio Lópezek adierazi du aholkularitza jakinaren gainean dagoela eta udalerrian auto elektrikoak erosteko laguntzak eskatuko dituela.

b) Aldaketa: Bidaiarien alokairurako automobilen eskatu ahalako zerbitzu publikoaren ordenantza



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Sonia Urdiainek jakinarazi du ordenantzaren eguneratzea Zerbitzu Orokorrek egingo dutela eta ekitaldiko azken hiru hilabeteetan hasiko dela (Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko abenduaren 14ko 476 erabakia); 7-8 hilabeteko epea aurreikusten da behin betiko onartu arte.

Jose Ignacio Lópezek adierazi du portaera-, jarrera- eta ekintza-jarraibideak beharrezkoak direla, sektoreak zerbitzu hobea eman dezan arautzeko. Horretarako, beharrezkoa da ordenantzaren irismena zabaltzea. Gainera, beharrezkotzat jotzen du ordenantza berria ahalik eta azkarren onartzea, taxiaren barruan publizitatea merkaturatzea erraztuko lukeena (diru-sarrerak izateko bide osagarri interesgarria, sektorearen egoera kontuan hartuta).

Hala eta guztiz ere, haren arabera, azpimarratzekoa da gaur egun ematen ari den zerbitzuaren kalitatea ezin hobea dela (inoiz baino hobea) arretari, hezibideari eta zerbitzuak eskatu eta horiei erantzuteko bide berriei dagokienez (app, telefono tradizionala, deien sistema automatikoa eta abar). Sonia Urdiainek modu positiboan nabarmentzen du udalerriko belaunaldi-txanda.

Jose Ignaciok kontsulta bat egin du taxilarien arteko kohesio faltaren arazoaren aurrean udalak egindako ekarpenari buruz; horri dagokionez, Sonia Urdiain turismo teknikariak uste du irtenbideak taxilarien elkartetik bertatik abiatu behar duela. Administrazioak esku hartu ahal izango du zerbitzua behar bezala ematen ari ez bada, hau da, erreklamazio, kexa eta zerbitzuaren balorazio txar asko badaude. Duela gutxi arte, adierazleak ez ziren ematen; gaur egun, kexa gehienak itxarote-denborei buruzkoak dira.

Bestalde, Idoia Belaskok txosten/azterketa bat egitea iradoki dio Jose Ignaciori, zer gertatzen ari den aztertzeko: zerbitzu-kopurua, beste hilabete batzuekin alderatzea... Jose Ignaciok esan du horretarako beharrezkoa dela proposamena batzarrera eramatea.

Oro har, Idoia Belaskok adierazi du Bilboko eta beste udalerrri batzuetako ordenantza berrikusteko konpromisoa hartuko duela, Getxoko ordenantza berrira egokitu daitezkeen ideiak hartzeko.

c) Telletxeko aparkaleku-plazak

Jose Ignaciok azaldu duenez, Telletxeko taxi-geltokian gaizki aparkatzeagatik zehatutako taxilariak errekurtsoa aurkeztu dute isunaren aurka. Idoia Belaskok eskura du udaltzaingoa berrikusten ari den informazio guztia.

Bestalde, Idoia Belaskok adierazi du ñabardura bat aztertuko duela: taxiek OHZ/bide publikoko okupazioa (¿) kontzeptupean ordaintzen duten tasak taxi-lizentzia bakoitzeko plaza jakin bat zehazten ote duen ala taxilari guztientzako aparkaleku-plaza kopuru mugabe bat, txandaka erabilita. Helaraziko die informazioa.

d) Lokal publikoa okupatzea



Jose Ignaciok adierazi duenez, telefonogune gisa erabiltzen duten lokalak 5,32 m²-ko tamaina du, eta, gaur egun, 300 euro ordaintzen dituzte hilean: 56 € baino gehiago m² bakoitzeko. Jose Ignacio Lópezek m²-aren prezioa berrikusteko eskatu du, merkatu-prezioaren gainera dagoela ulertzen baita. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen du aparkaleku mugikorrean lurzati bat jartzea, taxilariren batek edo lokalean lan egiten duten pertsonak ibilgailuak aparkatu ahal izateko. Bere garaian eskatu omen zuten, baina ukatu egin zitzaion.

5. Ideia eta proposamen berriak.

Sonia Urdiainek aurreratu duenez, kexak jaso dituzte Tesla markako (ibilgailu elektrikoak) taxi berrien inguruan; izan ere, gris ilunak dira, eta ez gris zilarrak, ordenantzak jasotzen duen bezala. Aurreko bileretan tindaketan aldaketaren bat egon zela aipatu zuten, baina ez kolore guztiz ezberdina zenik. Jose Ignaciok argudiatu du Teslak ez duela modelo hori beste kolore batean egiten, eta gris zilarra gisa saltzen duela.

Jose Ignacioren iritziz, berari ez dagokio TAO txartela, industria-ibilgailu industrialak dituzten Getxoko biztanleentzat edo enpresentzat baino ez delako. Idoia Belaskok esan dio eskumena duen arloari kontsulta egin diezaiola; TAO duen kale batean bizi bada, orduan badagokio. Taxilariak izateak ez ditu salbuesten TAO txartela edukitzetik.

Herritarrek taxi-ibilbide baten prezioari buruz duten pertzepzioari buruz hausnartuz, Jose Ignaciok app-aren funtzionaltasuna ezagutarazten du, baita aplikazioak ibilbide baten kostua nola adierazten duen ere. Sonia Urdiain eta Idoia Belasko arloko teknikarien ustez, app-a herritarren artean ezagutzera eman behar da, eta hura deskargatzeko publizitatea egitea proposatu dute tabernetan, jatetxeetan, hoteletan eta halakoetan. Halaber, pertsona askok app-a ez dutela deskargatzen gehitu dute, eta beste sistema bat indartu beharko litzatekeela –taxilarien webgunea bera–, online erreserbak egin ahal izateko.

Jose Ignacioren iritziz, aplikazioak funtzionamendu ona du, baina badaki webgunea ez dabilela behar bezala. Haren ustez, eguneratu egin behar da, erabiltzaile batzuek ez baitute aplikazioa deskargatzen, baina omnikanaltasuna eskatzen dute.

Ildo horretan, Jose Ignacio Lópezek ulertzen du app-a herritarren artean ezagutarazteko beharra. Bere iritziz, app-a deskargatu eta erabiltzeko bi ekintza egin beharko lirake: kanpoko publizitatea, ezagutarazteko, eta sektorearen eskutik kontzientziatzea, herritarrak app-a deskargatzera gonbidatzeko.

6. Galderak, iradokizunak eta bestelakoak.

Jose Ignaciok nabarmendu duenez, Kukularrako adarra ireki denetik zirkulazioa asko hobetu da eta, horrek mesede egiten die eguneroko zerbitzuak eta ibilbideak egitean.



Jose Ignaciok gailendu du ibilgailuek indarrean dagoen araudia bete behar dutela, eta, horretarako, udalak udalerriko taxiak urtero berrikusi ditzan eskatu du: behar bezalako tarifak, eguneroko kontrolak...

7. Hurrengo urratsak.

- Irailak 13: Enpresen Kontsulta Foroa. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte. Taxien mahaiaren proposamenak haren ordezkari Jose Ignacio Lópezek defendatuko ditu.

TAXIEN MAHAIAREN ERABAKIAK (2022-07-19):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Ondare arloarekin lokalaren m ² -ko prezioa zer baldintzatan ezarri zen kontsultatzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Bilboko Udalaren taxiak arautzen dituen ordenantza berrikustea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Taxilariak ordaintzen duten OHZ eta/edo bide publikoa okupatzeagatiko tasaren ñabardura	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
5. Sektorearen egoera edo/eta kokapena hobetu dezaketen proposamenak igortzea 2023an egikaritzeko	Taxien elkarteak	Irailaren 8a baino lehen